

ENGOTIK ITHAKAN

Miren Estibaliz Vivanco Ramírez, 15 urte

Bilbo

“Zeure adimenduan ukan ezazu Ithaka beti.

Horrainoko etorrera da zure jomuga.”

K.P. Kavafis (Andolin Eguzkitzak euskaratua)

Patuak nahi izan zizun *Ulyses* burutsu horretan
bihurturiko

munduratzea oparitu,

Poseidonen amaigabeko ur gazidun

itsasertz orlegian.

Ez zintuen, ordea, Egeo itsasoan kokaturiko uhin
lasai

bezain jostarien arteko etxetxo txuri txiki horie-
tan jaiotzen ikusi,

baizik eta, begirada ubel sarkor batez etengabe
jagon

ematen duen *Kantauri* Itsaso arranditsu eta harro-
putzak

musukatzea gogoko zukeen

Santurtziko portu umilean.

Udako gauetan, izarrak zenbakitzen aritu zinela,
kalatxorien oihartzunek aditzera ematen zizuten
askatasun xarmangarrian bizitzeko abagunea
eskaintzen zuen lurralde magikoa aurkitzen zela:

Ithaka.

Ithaka da zure aberri amestua;
bakea, askatasuna
nahiz tolerantziaren paradisu guragarri,
itsaso erdian galduta idoro nahi duzun mundua.
Han, mendi garai baten gailurrean,
zutiturik dirau gotorlekua,
non babestuta darraion zure desirarik sakonena,
zure ametsetako andrea zein mintzo zaharren
hazama:

Penelope zintzo zurea.

Engoitik Ithakan.

Penelope ez da soilik zure erregina,
geure bihotzetako dama ere.
Berak Euskal Herriko historia irun zuen
behinolako mintzoz,
gure gerokoak goruetan
ahots berriz.

Armiarmaren sare itsasgarrietan
Penelope harrapatuta sumatzeagatik,
sufritzea zenuen orduan,
ezkongai aunitzen menpean larriturik,
arrisku gorrotagarrienetatik
amore ematear zegoelakoan.

Zuk ere latzak ikusi zenituen *Ithakarako* bidaiian.

“Inork ez” bezalaxe engainatu zenuen
begi bakarreko *Polifemo* gizajalea.

Ez zinen atzapardun Sirenen
kantu liluragarriengatik
limurtzen utzi.

Ibilbidearen sufrikarioa bizi zenuen.

Azkenik, *Tiresias* igarlearen ahotik,
ulertu zenuen bidaiaren benetako zentzua:
Ithaka jomuga, baina bidaldia ere bazela.

Ez zitzaizun joan-etorri erraza suertatu.

Zure barkua itsaso gangartsuaren jostailu zen,
haize orro, uhin gailurren artean intxaur-azal bat
izan zenentz.

Baina, ez eta mendi antzeko olatu erraldoiek,
ez eta tximista nahiz trumoi beldurgarriek,
ez eta ekaitzik basatienek
lortu zuten zure noranzko irmotik urruntzea.

Engoitik Ithakan

Homeroren bertsoen jabea den
distira iraungiezinako izarretan ibilbidea
irakurtzen jakin zenuen,
Mirande eta *Aresti* orpoz orpo jarraikiz
Ithakarako poesia oinatzetatik.

Kavafisi men egin barik, tamalez,
labur suertatu zitzaizun bidaiia,
mende erdia egun bakarreko hegaldian ihesean.

Baina egun horretan zehar
ezagutu zenuen mundu zabala.
Itzalen lurrin hezea uxatuaz batera,
ulertu zenuen
gizakiarentzat sakratuena
bere unibertsoa berreskuratzea dela,
bere kabuz eraikitako aberria,
bere esku zein hizkuntza erabiliaz.

Ithakan bego betiko,
Andolin Eguskitza maitea,
gure *Penelope* engoitik jagole daukazu eta.